



## INPEDANZIOMETRIA ESOFAGIKOA 24 ORDUZ

### ¿ ZERTAN DATZA PROBA?

PHSmetria esofagikoaren proba osagarri bat da, erreflexu gastroesofagiko garratzaren eta ez garratzaren intentsitate maila aztertzea ahalbideratzen duena, baita gasarena ere, ekipo eskuragarri bat erabilita (zunda eta gailua) 24 orduz eta modu ambulatorioan.

### Nola prestatu behar dut Probarako?

- Protoi bonba erako inhibitzailek ez hartu, proba aurreko 7egun aurretik (omeprazol, lansoprazol, rabeprazol...) ezta ranitidina erako farmakoak hartu aurreko 48 ordu lehanagotik edo eta antzeko beste antidoazido batzuk ere..
- Baraurik egon behar duzu (ez solidoak, ez likidoak, ezta urik ere) aurreko gauetik aurrera, gutxienez 8 orduz.
- Proba goizez egingo da, PROBA FUNTZIONALEN ARLOAN, 7.solairuan-AUO TXAGORRITXU. Utzi bolantea idazkaritzan unitatera iristen denean.

### Nola egingo didate proba?

- Zunda mehetxo eta malgu bat sartuko didate urdailetik sudurreraino. Behin, egoki jarri dela ikusi ondoren, azterketa hasiko da. Proba ongi toleratutakoa izango da eta ez du anestesiarik beharko.
- Erizaintzako Probaren arduradunak, erregistro horri bat emango dizu, zuk erraztutako jarraibideen arabera bete beharko duzuna.
- Jarduera eta otordu berberak egin beharko dituzu ohiko bizitzaren arabera. Daukazun lanaren arabera, gerta daiteke egun horretan zure lanera ez itzuli ahal izatea.
- Hurrengo egunean, jarritako orduan itzuliko zara erizaintzako pertsonalak zunda eta gailua erretira dezan.
- Ikerketak iraun bitartean zunda modu akzidentalean erretiratuko balitz, gailua hurrengo egunean unitatean bertan utziko genuke.

### Proba ondoren

Izan kontuan zunda bat eraman beharko duzula eta erregistratzaile bat 24 orduz, gerta daiteke egun horretan zure lan zentrorra joan ezin izatea, ezta ariketa fisikorik ezta gehiegizko lanik egin ahal izatea.

Erregistroa aztertua izango da eta emaitza eskatu zuen medikoari igorriko zaio.

### Harreman telefonoa:

Kontsultara joan ahal ezin baduzu, edo hitzordua aldatu, deitu 945 00 75 00 telefonora.